

# HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO LEKUALDATZE-LEHIAKETA



Haurreskolak Partzuergoko **behin-betiko hezitzaileak** bere atxikipena aldatzeko prozesua.

### **Nori zuzendua?**

1. Bere lanpostuan lanean ari direnak.
2. **Nahitaezko eszedentzian:** azken hori atxikipen berrien jabetzearen data baino lehen amaitzea aurreikusten denean.
3. **Borondatezko eszedentzian:** lanera itzultzeko eskaera egiten badute dagokion deialdia argitaratu baino lehen.
4. **Bateraezintasunagatik eszedentzian:** egiaztatzen badu bateraezintasuna eragiten zuen arrazoia amaitu dela edo amaituko dela (ezinbestekoa lanera itzultzeko eskaera).
5. Langile finkoak zeinen **lanpostua desagertu LZn.**

Borondatez

Derrigorrez

Lanpostua behin betikoz desagerrarazi zaien hezitzaileen kasuan, **lehenespeneko eskubidea** izango dute gainerako hautagaien aldean.

- Merezimenduen baremoa aplikatzean puntuazio handiena lortzen duena.
- Berdinketarik gertatuz gero, merezimenduen baremoko atal bakoitzean puntuaziorik altuena duena lehenetsiko da.
- Berdinketa badago “**J**” letra erabiliko da.

### **Zer eskaintzen da?**

Plaza / Lantokiak eskaintzen dira:

- Enpresak zerrendatutakoak (I.eranskina)
- Interesdunak mugitzen direnean askatzen dituzten plazak.

Hasieran ez dira agertuko, baina gero bai.

**Borondatezko eskaerak:** *Ekainak 26-27*

- Lanpostuak amortizatu behar diren haurreskolen kasuan, norbere lanpostua amortizatzeke.
- IV. ERANSKINA bete eta lal@haurreskolak.eus helbidera bidali.
- Ezin izango da uko egin.

**LALean derrigorrez parte hartu behar duten haur-hezitzaileen **behin-behineko** zerrenda argitaratu.** *Ekainak 28*

- Erreklamazioa egunean bertan lal@haurreskolak.eus emaila bidaliz.

**LALean derrigorrez parte hartu behar duten haur-hezitzaileen **behin-betiko** zerrenda argitaratu.** *Uztailak 1*

## Eskabideak aurkeztea: *Uztailak 1-4*

- Eskabide bakarra.
- Espresuki adierazi oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla.
- Ez dago mugarik haurreskola kopuruari dagokionez.
- Baliatuko diren merezimendu akademikoen egiaztagiriak.
- Eskabide-orria modu telematikoan jaso bakoitzak bere helbide elektronikoan.
- Eskabide-eredua beteta eta merezimenduen egiaztagiriak
- Epea amaiturik, ez da onartuko ez eskaera berririk ezta aldaketarik.

**Langile onartuen eta baztertuen **behin-behineko** zerrenda lortutako puntuazioarekin.**

- [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus). -en argitaratuko dira. *Uztailak 10*
- Erreklamazioa *Uztailak 11-15*
- Erreklamazio eredua modu telematikoan jasoko dute behin-behineko zerrendan ageri diren hezitzaileek bere helbide elektronikoan.
- Erreklamazio epean **ez dira merezimendu berriak onartuko.**

**Langile onartuen eta baztertuen **behin-betiko** zerrenda lortutako puntuazioarekin.**

- [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus) -en argitaratuko dira. *Uztailak 18*
- **Gora jotzeko errekurtsioa** *Hilabete bat*

Haurreskolak Partzuergoaren egoitza nagusian entregatuta

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015

Legearen 16.4 artikuluan

## Langileen atxikipen berriaren behin-behineko esleipena argitaratzea: *Uztailak 17*

- Esleipenak egiteko kontuan hartuko dira bai eskaerak baita parte-hartzaileen lehentasunezko hurrenkera ere.
- Haurreskolak Partzuergoko gerentearen ebazpen bidez argitaratu.

## Behin-behineko atxikipenaren kontra erreklamazioak aurkeztea eta ukoak. *Uztailak 19-22*

- **Atxikipenaren kontra** erreklamazioak aurkeztu.
- **Eskuratutako lanpostuari uko** egin.
- Uko egiteko zein erreklamazioa aurkezteko **eredu bera** erabili.
  - \* *Modu telematikoan jasoko dutena behin-behineko atxikipenaren zerrendan ageri diren hezitzaileek, bakoitzak bere helbide elektronikoan.*
- Dagokion atala behar bezala beteta bidali Haurreskolak Partzuergoari.

Kontuan hartu beharra dago behin-behinean zerrendan atxikipen berria lortu ez izan arren, behin betiko atxikipenean lanposturen bat lor dezaketela interesatuek.

**Behin betiko zerrenda:** *Uztailak 26*

- Behin-behineko atxikipena, egoki diren aldaketekin
- Partzuergoaren web-orrian.

**Plaza berriak esleitzeari buruzko behin betiko LALaren kontrako gorako helegiteak.** *Hilabete bat*

- Haurreskolak Partzuergoaren egoitza nagusian
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.



## Lanpostuaz jabetzea.

- Irailaren 2ean.

## Behin betiko esleitutako plazari ezin uko egitea.

- Ezin uko egin behin betiko ebazpenean esleitutak plaza berriei.
- Ezezta daiteke deialdiko arauak bete ez dituen edo eskabidean adierazi ezaugarriekin bat ez datorren edozein pertsona interesdunak lortutako atxikipena.

## Lekualdatze-lehiaketaren eraginak parte hartzea derrigorrezkoa den kasuetan.

- Parte hartzen ez badute edo behar bezainbeste haurreskola eskatzen ez badute, behin betiko atxikipena emango zaie **ofizioz**.
- **Hutsik geratu diren plazen artean zerrenda osatuko da.**

*“J” letrarekin abiatuta, haurreskolak kokatuta dauden udalerrien hurrenkera alfabetikoa osatuko da; udalerrri batean bi haurreskola edo gehiago baleude haurreskolaren kodearen arabera, txikienetik handienera antolatuko dira plazak.*

# EGUTEGIA

| EKAINA     |                               |   |   |  |           |         |
|------------|-------------------------------|---|---|--|-----------|---------|
| Astelehena | Asteartea                     | Asteazkena  | Osteguna  | Ostirala   | Larunbata | Igandea |
| 24         | 25<br>LAL deialdia argitaratu | 26<br>LAL Borondatezko eskaerak amortizatuazateko | 27<br>LAL Borondatezko eskaerak amortizatuazateko | 28<br>LAL derrigorrezko partaideen behin-behineko zerrenda (puntuaziorik gabe)<br>Zerrendaren aurkako erreklamazioak | 29        | 30      |

| UZTAILA  |  |   |   |   |           |         |
|--|--|---|---|---|-----------|---------|
| Astelehena   | Asteartea  | Asteazkena  | Osteguna  | Ostirala  | Larunbata | Igandea |
| 1<br>LAL derrigorrezko partaideen behin betiko zerrenda (puntuaziorik gabe)<br>LAL eskabideak eta merituak aurkezteko epea | 2<br>LAL eskabideak eta merituak aurkezteko epea | 3<br>LAL eskabideak eta merituak aurkezteko epea                    | 4<br>LAL eskabideak eta merituak aurkezteko epea  | 5<br>LAL Batzordea  | 6         | 7       |
| 8<br>LAL Batzordea   | 9<br>LAL Batzordea                               | 10<br>Partaideen behin-behineko zerrendak lortutako puntuazioarekin | 11<br>Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak (zerrendaren hurrenkera+puntuazioa)             | 12<br>Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak (zerrendaren hurrenkera+puntuazioa) | 13        | 14      |
| Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak (zerrendaren hurrenkera+puntuazioa)15                                    | 16   | 17  | 17<br>LAL partaideen behin betiko zerrenda puntuazioarekin eta behin-behineko esleipenarekin argitaratu | 19<br>LAL behin-behineko esleipenen aurkako erreklamazioak eta ukoa aurkezteko epea         | 20        | 21      |

| UZTAILA   |           |            |          |                                  |           |         |
|---|-----------|------------|----------|----------------------------------|-----------|---------|
| Astelehena  | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala                         | Larunbata | Igandea |
| 22<br>LAL behin-behineko esleipenen aurkako erreklamazioak eta ukoa aurkezteko epea | 23        | 24         | 25       | 26<br>LAL Behin-betiko esleipena | 27        | 28      |
| 29<br>Gorako helegiteak aurkezteko epea (abuztuaren 19ra arte)                      | 30        | 31         | 1        | 2                                | 3         | 4       |

# Merezimenduak:

## Aintzinasuna haurreskolan:

Atxikipena duen haurreskolan edo lan-zentroan:

- Egun bakoitzeko **0,010 puntu.**
- Behin-behineko atxikipenak dituzten haur-hezitzaileek, bere plaza behin-betirako desagertu delako, **mantendu egingo dute jatorrizko aintzinasuna.**
- Lanpostua bi aldiz jarraian behin-betirako ezabatu izan bada eta LALean derrigorrez parte hartu behar izan badu, egon deneko **bi haurreskoletako aintzinasun metatua** kontatuko zaio.
- **Borondatezko ukoak ez** dira kontuan izango ondorio horietarako.

## Aintzinasuna Haurreskolak Partzuergoan:

Atxikipena duen haurreskolan edo lan-zentroan:

- Egun bakoitzeko **0,010 puntu.**
- **Ez** da kontutan hartuko **borondatezko eszedentzian edota bateraezintasun eszedentzian** egondako aldia.
- Haurrak edo senitarteak **zaintzagatiko eszedentzia edota nahitaezko eszedentzia-aldiak bai.**

# Merezimenduak:

## Merezimendu akademikoak:

- Baremazio-birbaremazio araudian puntuatzen dituzten ikasketa-tituluak, eta 0-3 zikloari zuzendutako formazioa homologatua.
- **15 puntu** lortu ahal izango dira.
- **Ez** Haurreskolak Partzuergoak emandako formazio-saio eta ikastaroak.
- **Ez** hamar orduko baino iraupen gutxiagoko formazio-saioak.
- Ziurtagarian zehaztuta orduak edo kredituak. **Ordu bakoitzak 0,010 puntu.**
- **Kreditu bakoitza 10 ordukoa.**

- Irakaslea Haur Hezkuntzan - Diplomatura 1 puntu
- Irakaslea Haur Hezkuntzan - Gradua 1 puntu
- Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria 1 puntu
- Haurtzaindegian espezializatutako teknikaria 1 puntu
- Gaikuntza Haur Hezkuntzan 1 puntu
- Psikologia – Lizentziatura / Gradua 1 puntu
- Pedagogia – Lizentziatura / Gradua 1 puntu
- Psiko-pedagogia Lizentziatura 1 puntu
- Irakasle Diplomaturetan beste espezialitateren bat 0,5 puntu
- Irakaslea Lehen Hezkuntzan - Gradua 0,5 puntu
- HH edo eta LH minorrak eta aipamenak 0,5 puntu

## Diplomaturak:

- 1.- Atzerriko Hizkuntza
- 2.- Heziketa Berezia
- 3.- Heziketa Fisikoa
- 4.- Lehen hezkuntza
- 5.- Musika hezkuntza
- 6.- Entzumena eta Mintzaira dramatizazioaren bidez

## Minorrak eta aipamenak

- 1.- Haur Hezkuntza Tailerrak
- 2.- Euskara, hezkuntza tresna
- 3.- Atzerriko Hizkuntza
- 4.- Heziketa Berezia
- 5.- Berrikuntza Proiektua
- 6.- Adierazpena eta komunikazioa
- 7.- Kulturartekotasuna
- 8.- Hizkuntzen trataera bateratua

- 9.- Irakurzaletasuna eta liburutegia
- 10.- Gorputz Hezkuntza
- 11.- Berrikuntza HH Eskolan.
- 12.- Musika Hezkuntza
- 13.- Hizkuntza Aniztasuna Eskolan.
- 14.- Curriculuma eta Baliabideak
- 15.- Berrikuntza Lehen Hezkuntzako

# Merezimenduak:

## Koordinatzaile kargua.

- Hilabete oso bakoitzeko **0,25 puntu** eta gehienez **10 puntu**.

### Kontutan hartzekoak:

- Antzintasuna, zentroan eta Partzuergoan, eta koordinatzaile karguaren merezimenduak **ofizioz** baloratuko dira.
- **Merezimendu akademikoak aurkeztu** behar dira.
- Berdinketarik gertatuz gero merezimenduen baremoko atal bakoitzean, puntuaziorik altuena duena lehenetsiko da.
- Oraindik ere berdinketa badago “J” letra erabiliko da.

*Eskabideak eta merituen ebaluatzeko Batzorde bat eratuko da*

# ZORTE ON!

